

Indalezio Bizkarrondo
Bilintx (1831-1876
Donostia, Gipuzkoa)

POTAJIARENA

Doinua: Egunaren izena
Neurria: Hamarreko txikia (hg) / Bost puntuko txikia (ip)
Testuaren iturria: Antonio Zavala. 1993.
Bilintx – bertsoak eta bizitza. Auspoa. 195 or.

Oiartzunen (Gipuzkoan) pilota partida bat ikusi ostean, ostatura sartu zen Bilintx, bazkaltzera. Eta mahaian apaiza egokitu. Garbantzu (edo potaje) platerkada handiak jan zituen hark, Bilintx goseak utziz.

1 Egunaren izena
ez dakit nola **zan**
baino seinalagarri
partidu bat **bazan**
pelotan jokatzeko
Oiartzungo **plazan**
nahi det nere orduko
gertaera **esan**
hurrenguan beste bat
eskarmenta* **dezan**.

2 Partidua jokatzez
bukatu **zanian**
ostatura juan nintzan
zuzen-**zuzenian**
mahaiera jana ekartzen
hasi **ziranian**
apaiz bat serbitzen zan
aurren-**aurrenian**
makina bat sartu zan
haren **barrenian**.

3 Zintzur ona zuela
klaro **sinaliak**
eman zituen apaiz
barbantzu **zaliak**
dozenaka tragatzen
zituen **aliak**
maskatu ere gabe
tripazai* **jaliak**
halako aisa nola
antxua **baliak**.

4 Tragatutzen zituen
igar da **heziak**
ez ziran haren dina*
zetozen **klasiak**
ekarri orduko zeuzkan
tripara **pasiak**
kortesia gabeko
txapela **luziak**
harek nahikua jan ta
ni berriz **gosiak**.

5 Nere ditxa* guziak
badute **ajia**
noski naiz Jaungoikoak
ahaztutzat **lajia***
gosiak egin nuen
hango **biajia**
kulpa duenarentzat
daukat **korajia***
apaiz batek jan zuen
nere **potajia**.

6 Geroztik ostatuan
sartu **ordurako**
galdia egin gabe
ez det nik **lajako**:
egun hartan apaizik
ote dan **harako**
ez apaiz jaun guziak
igual **diralako**
baizik batek bildurra
sartu **ziralako**.

* ***eskarmenta*** = *irakaspena hartu*
tripazai = *tripazain, tripontzi, sabelkoi*
ez ziran haren dina = *ez ziren harentzako beste*
ditxa = *zorion, zorte*
lajia = *lagatakoa, utzitakoa*
korajia = *kuraia, ausardia*